

# 2015eko MEMORIA ETA

# 2016ko HELBURU ESTRATEGIKOAK

# URIBE KOSTAKO GHAZ

## AURKIBIDEA

Datu Orokorrak .....	pág. 03
<b>2015 Datu eta taula estatistikoak.....</b>	<b>pág. 05</b>
Banakako esku-hartzeen laburpen taula.....	pag. 06
Familiak.....	pag. 06
Adingabeak.....	pag. 11
Talde ekintzen laburpen taula.....	pag. 15
Ondorio esanguratsuenak.....	pag. 17
Ondorio nagusiak herrika.....	pag. 21
Amaierako hausnarketa.....	pag. 24
<b>2015erako helburuen berrikustea eta balorazioa.....</b>	<b>pág. 26</b>
Pertsona hartzaileen helburuak.....	pag. 27
Gizarte eta hezkuntza esku-hartze prozesuetako helburuen kudeaketa.....	pag. 27
Kanpoko koordinazioaren helburuak.....	pag. 28
Talde kudeaketaren helburuak.....	pag. 29
<b>2016rako helburu estrategikoen panela.....</b>	<b>pág. 30</b>

**GHAZaren DATUAK**

Izena	<b>URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEKO ZERBITZUETAKO GHAZ</b>
Erreferentziadun OGZ	<b>URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA</b>
Helbidea	<b>Gatzarriñe, 2 Bajo. Sopelana</b>
Posta elektronikoa	<b>eise@uribekosta.org</b>
Telefonia eta faxa	<b>946762674 / 946762872</b>
Koordinatzailea	<b>BEGOÑA RUIZ LÓPEZ</b>

**TALDEKO GIZA BALIABIDEAK**

Taldekoko giza baliabideen kantitatea eta nolakotasuna	Iaz		Aurten	
	Lanaldi kopurua	Urteko orduak	Lanaldi kopurua	Urteko orduak
Talde koordinatzailea				
Adingabeen hezitzailea	<b>2</b>	<b>3.298</b>	<b>2</b>	<b>3.284</b>
Familia hezitzailea	<b>1</b>	<b>1.649</b>	<b>1</b>	<b>1.642</b>
Erkidegoko hezitzaileak				
Psikologoak				
Programa begiraleak				
Beste batzuk				
<b>Profesionalak guztira</b>	<b>3</b>	<b>4.947</b>	<b>3</b>	<b>4.926</b>
Boluntarioak				
<b>Giza baliabideak guztira</b>				

**BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURAK**

Baliabideak	Iaz		Aurten	
	Berezkoak	Publikoak	Berezkoak	Publikoak
Lokaleko metro karratu kopurua		X		X
Bulego kopurua / gelak		1		1
Lanpostu kopurua (mahaia +aulkia)		3		3
Elkarrizketa gela kopurua		1		1
Ordenagailu kopurua		4		4
Inprimagailu kopurua		2		2
Telefono sareen kopurua		3		3
Telefono gailuen kopurua		3		3
Helbide elektronikoen kopurua		3		3
Internet sarbidea		BAI		BAI
Taldeentzako gela prestatuak		BAI		BAI

# 2015EKO DATU ETA TAULA ESTADISTIKOAK

**BANAKAKO ESKU-HARTZEEN LABURPEN TAULA**
**FAMILIAK**
**FAMILIARTEKO ESKUHARTZE KOPURUAK**

	Atenditutako familiak	Esku -hartze familiarrak		
		Irekiak	Aurten irekiak	Itxiak
Barrika	-	-	-	-
Berango	4	1	-	3
Gorliz	3	2	1	1
Lemoiz	-	-	-	-
Plentzia	6	4	3	2
Sopela	5	3	2	3
Urduliz	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>9</b>	<b>7</b>	<b>9</b>

**ESKU-HARTZE IREKIAK MOMENTUKO HONETAN DAUDEN FASEA**

A Fasea: Behaketa eta diagnostikoa	<b>2</b>
B Fasea: Gizarte Eta Hezkuntza esku-hartzea	<b>7</b>
C Fasea: Jarraipena	<b>0</b>

**ESKU-HARTZE ITXIAK IXTEKO ARRAZOIAK**

Helburuak betetzeagatik	<b>4</b>
Kasua deribatzeagatik	<b>2</b>
Utzikeriagatik/kolaborazio faltagatik	<b>2</b>
Bestelako arrazoiengatik	<b>1</b>

**ESKAERAREN JATORRIA**

Familia bera	<b>4</b>
Ikastetxea	<b>1</b>
Osasun zentroa	<b>0</b>
Fiskaltza / Epaitegia	<b>1</b>
GHAZ / Arreta Psiko-Soziala (APZ)	<b>0</b>
OGZ	<b>12</b>
SSE / Foru Aldundia	<b>0</b>

**ARRETA JASO DUTEN FAMILIEN PROFILA**

	FAMILIA EGITURA MOTA				
	Guraso bakarrekoa, familia zabalean bizikidetzen	Guraso bakarrekoa	Berregindako familia	Biparentala	Bestelakoak (zaintza partekatua+ berregindakoa)
Barrika	-	-	-	-	-
Berango	-	1	3	-	-
Gorliz	-	-	2	1	-
Lemoiz	-	-	-	-	-
Plentzia	1	2	-	3	-
Sopela	-	5	-	-	-
Urduliz	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>1</b>	<b>9</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>-</b>

	Bikotearen kide bakoitzaren JATORRI GEOGRAFIKOA						
	Bizkaia	Gainerako Euskal Herria	Gainerako Estatuak	Europa (Portugal)	Latino-amériKa	Arabiar Herrialdeak	Beste batzuk
Barrika	-	-	-	-	-	-	-
Berango	3	-	-	-	1	-	-
Gorliz	1	-	-	-	2	-	-
Lemoiz	-	-	-	-	-	-	-
Plentzia	5	-	-	1	-	-	-

	Bikotearen kide bakoitzaren JATORRI GEOGRAFIKOA						
	Bizkaia	Gainerako Euskal Herria	Gainerako Estatua	Europa (Portugal)	Latino-amériKa	Arabiar Herrialdeak	Beste batzuk
Sopela	5	-	-	-	-	-	-
Urduliz	-	-	-	-	-	-	-
<b>Total</b>	<b>14</b>	-	-	<b>1</b>	<b>3</b>	-	-

	EGOERA EKONOMIKOA	
	Laguntza ekonomikoa jasotzen dute	Ez dute laguntza ekonomikorik jasotzen
Barrika	-	-
Berango	1	3
Gorliz	3	-
Lemoiz	-	-
Plentzia	4	2
Sopela	2	3
Urduliz	-	-
<b>Total</b>	<b>10</b>	<b>8</b>

LAN EGOERA	
Lan babestua	Gizonak: 0 Emakumeak: 0 GUZTIRA: 0
Lan normalizatua	Gizonak: 6 Emakumeak: 6 GUZTIRA: 12
Lan aldien alternantzia /langabezia	Gizonak: 2 Emakumeak: 4 GUZTIRA: 6
Lan gabea	Gizonak: 3 Emakumeak: 1 GUZTIRA: 4
Kontraturik gabeko lana	Gizonak: 0 Emakumeak: 2 GUZTIRA: 2



GURASOEN EGINBEHARREN BETETZEA (Helduen irudiak)	
Egokia	9
Desegokia	12
Baloratze prozesuan edo ezezaguna	0
Ebaluatu gabea	0
Ez betetzea	1

ADINAK	
0- 5 urte	Mutilak: 3 Neskak: 4 GUZTIRA:7
6- 10 urte	Mutilak: 5 Neskak: 4 GUZTIRA:9
11 - 14 urte	Mutilak: 8 Neskak: 1 GUZTIRA:9
15 - 18 urte	Mutilak:6 Neskak: 1 GUZTIRA: 7

FAMILIEN ADINGABEEN BABESGABETASUN MAILA	
Baloratze prozesuan	1
Arrisku gabea	1
Arrisku arina	10
Arrisku ertaina	19
Arrisku larria	1

BESTE ERREKURTSO BATZUETAN ESPEDIENTEA IREKITA DUTEN FAMILIAK	
Txostenak Foru Aldundian	3
Txostenak Epaitegian	6

OSASUN MENTALEKO FAMILIA ERABILTZAILEAK	
Menpekotasun arazoak	0
Arazo psikologikoak	13

#### FAMILIA ESKU-HARTZEETAN ARRETA JASO DUTEN ADIN TXIKIKOAK

	SEXUA		
	Mutilak	Neskak	Guztira
Barrika	-	-	-
Berango	7	1	8
Gorliz	5	3	8
Lemoiz	-	-	-
Plentzia	6	3	9
Sopela	4	3	7
Urduliz	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>22</b>	<b>10</b>	<b>32</b>

**ADINGABEAK**
**ADINGABEKOEKIN ESKU-HARTZE KOPURUA**

	Arreta jaso duten adingabeak		Esku-hartze irekiak adingabeekin (*)		Aurtengo esku-hartze irekiak adingabeekin		Esku-hartze itxiak adingabeekin	
	Banakakoa	Taldekoa	Banakakoa	Taldekoa	Banakakoa	Taldekoa	Banakakoa	Taldekoa
Barrika	1	1	1	1	-	1	-	-
Berango	-	1	-	1	-	-	-	-
Gorliz	-	5	-	5	-	4	-	2
Lemoiz	-	-	-	-	-	-	-	-
Plentzia	-	10	-	7	-	6	-	7
Sopela	5	6	1	3	1	3	4	5
Urduliz	-	2	-	2	-	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>25</b>	<b>2</b>	<b>19</b>	<b>1</b>	<b>15</b>	<b>4</b>	<b>14</b>

**ADINGABEEKIN ESKU-HARTZE IREKIETATIK**
**Banakakoa    Taldekoa**

A Fasea: Behaketa eta diagnostikoa	<b>0</b>	<b>0</b>
B Fasea: Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea (*)	<b>2</b>	<b>19</b>
C Fasea: Jarraipena	<b>0</b>	<b>0</b>

(\*) Atal honetan berarekin gizarte eta hezkuntza lan bat abian dagoen edozein adingabe sartzen da , bai banakako lan bat izan, bai talde baten barruan egon.

**ADINGABEEKIN BURUTUTAKO ESKU-HARTZE ITXIAK IXTEAREN ARRAZIOIA**
**Banakakoa    Taldekoa**

Helburuen betetzeagatik	<b>1</b>	<b>1</b>
Adin-nagusitasunagatik	<b>1</b>	<b>1</b>
Kasua Foru Aldundiko Adingabeen zerbitzura deribatzeagatik	<b>0</b>	<b>0</b>
Utzikeriagatik/kolaborazio faltagatik	<b>2</b>	<b>1</b>
Bestelako arrazoiengatik: Herrialde aldaketa (bizilekua) / Bestelako arreta (Terapia psikologikoa, GHAZ)	<b>0</b>	<b>0</b>
Programa amaitzeagatik	<b>0</b>	<b>10</b>

Ordutegien bateraezintasunagatik	0	1

### ESKAERAREN JATORRIA

	Banakakoa	Taldekoa
Familia bera edo adingabea	0	3
Ikastetxea	2	6
Osasun zentroa	0	0
Fiskaltza / Epaitegia	0	0
GHAZ	0	1
OGZ	4	12
Arreta Psiko-Soziala	0	0
SSE - Foru Aldundia	0	1

### ARRETA JASO DUTEN ADINGABEEN PROFILA

	FAMILIA EGITURA MOTA						
	Guraso bakarrekoa, familia zabalean bizikidetzen (aitona-amonak, izeko-osabak, ...)	Guraso bakarrekoa	Berregindako familia	Biparental a	Harrera familia zabala	Zaintza partekatua	Foru Aldundiko Adin txikikoen Zerbitzuak dauka tutela
Barrika	-	-	-	1	1	-	-
Berango	-	-	1	-	-	-	-
Gorliz	-	1	3	-	-	1	-
Lemoiz	-	-	-	-	-	-	-
Plentzia	-	4	-	4	2	-	-
Sopela	-	7	-	4	-	-	1
Urduliz	-	-	1	1	-	-	-
<b>Guztira</b>	-	<b>12</b>	<b>5</b>	<b>10</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

(\*) Atal honetan berarekin gizarte eta hezkuntza lan bat abian dagoen edozein adingabe sartzen da , bai banakako lan bat izan, bai talde baten barruan egon.

	ADINAK			
	4 -7 urte	8 -12 urte	13 -16 urte	17 - 18 urte
Barrika	-	-	1	1
Berango	-	-	1	-
Gorliz	-	3	2	-
Lemoiz	-	-	-	-
Plentzia	-	7	2	1
Sopela	-	3	6	2
Urduliz	-	-	2	-
<b>Guztira</b>	<b>-</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>4</b>

(\*) Atal honetan berarekin gizarte eta hezkuntza lan bat abian dagoen edozein adingabe sartzen da , bai banakako lan bat izan, bai talde baten barruan egon.

	JATORRI GEOGRAFIKOA						
	Bizkaia	Gainerako Euskal Herria	Gainerako Estatuak	Europa	Hego.amerika	Asia Áfrika	Beste batzuk (Errusia)
Barrika	2	-	-	-	-	-	-
Berango	-	-	-	-	1	-	-
Gorliz	3	-	-	-	2	-	-
Lemoiz	-	-	-	-	-	-	-
Plentzia	5	-	-	2	2	1	-
Sopela	7	-	-	-	3	-	1
Urduliz	2	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>19</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>2</b>	<b>8</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

(\*) Atal honetan berarekin gizarte eta hezkuntza lan bat abian dagoen edozein adingabe sartzen da , bai banakako lan bat izan, bai talde baten barruan egon.

SEXUA	Banakakoa	Taldekoa
Gizonezkoak	2	15
Emakumezkoak	4	10

BESTE ETNIA BATZUETAKO KIDEAK	Banakakoa	Taldekoa
Etnia ijitoa	0	0
Beste batzuk	0	0

ADINGABEEN BABESGABETASUN MAILA	Banakakoa	Taldekoa
Arrisku arina	1	19
Arrisku ertaina	4	6
Arrisku larria edo oso larria	1	0
Ebaluatu gabea	0	0

BESTE BALIABIDE BATZUETAN ESPEDIENTEA IREKITA DUTEN ADINGABEAK	Banakakoa	Taldekoa
Txostenak Foru Aldundian	2	5
Txostenak Epaitegian	3	2

OSASUN MENTALEKO ADINGABEKO ERABILTZAILAK	Banakakoa	Taldekoa
Adizio arazoak	0	0
Arazo psikologikoak	3	11

## TALDE EKINTZEN LABURPEN TAULA

### GHAZ-KO ERABILTZAILE HELDUEI ZUZENDUTA DAUDEN TALDE EKINTZAK

Izena	Egonkorra /Puntuala	Erabiltzaile kopurua	Saio kopurua
GURASOENTZAKO SUKALDARITZA TAILERRA	Puntuala	30	9
GURASOTASUNA TALDEA	Egonkorra	12	1+10
Guztira: 42 helduk arreta jaso dute			

### ERABILTZAILE HELDUEI ZUZENDUTAKO EKINTZA KOMUNITARIOAK

Izena	Egonkorra /Puntuala	Erabiltzaile kopurua	Saio kopurua
FAMILIA ETA HEZKUNTZA JARDUNALDIAK	Puntuala	30	2
Guztira: 30 helduk arreta jaso dute			

### FAMILIA OSOekin BURUTUTAKO TALDE EKINTZAK

Izenak	Erabiltzaile kopurua	Saio kopurua	Parte-hartzaile kopurua
FAMILIA TXANGOIA MUSKIZ ETA SOPUERTA ABENTURARA	40	1	43
GIZARTE SAREAK ETA EUSKARRI DIGITALAK	20	1	0
SUKALDARITZA TAILERRA FAMILIA ARTEAN	20	4	0

### TALDE PROGRAMAK ADINGABEEKIN: 2015 URTARRILA - EKAINA

Izena	Egonkorra/ Puntuala	Erabiltzaile kopurua	Saio kopurua
ESEI ( Ikasgune talde hezitzailea)	Egonkorra	6	16
AURRE-NERABE TALDEA	Egonkorra	5	16
NERABE TALDEA	Egonkorra	9	16
Guztira: 20 adingabek arreta jaso dute			

**TALDE PROGRAMAK ADINGABEEKIN: 2015 URRIA - ABENDUA**

Izena	Egonkorra/Puntu uala	Erabiltzaile kopurua	Saio kopurua
ESEI ( Ikasgune talde hezitzailea)	Egonkorra	6	12
AURRE- NERABE TALDEA	Egonkorra	5	12
NERABE TALDEA	Egonkorra	9	12
<b>Guztira: 20 adingabek arreta jaso dute</b>			

**TALDE PROGRAMAK ADINGABEEKIN: 2015 URTEKO EKINTZA PUNTUALAK**

Izena	Egonkorra/Punt uala	Erabiltzaile kopurua	Saio kopurua
ASTE SANTUKO IRTEERA DIMA ETA BALTZOLAKO KOBETARA, TALDE PROGRAMETAKO ADIN TXIKIKO GUZTIETKIN	Puntu uala	11	1
SUKALDARITZA TAILERRA NERABEEN TALDEAREKIN	Puntu uala	7	4
KURTSO ITXIERA EKINTZA NERABEEKIN. ZINEMARA ETA MERIENDA	Egonkorra	5	1
MURGIARA 3 EGUNETAKO UDAKO TXANGOIA NERABE TALDEAREKIN	Egonkorra	7	3
PINAKOSOLOKO PISZINETARA UDAKO TXANGOIA; IKASGUNE ETA AURRE - NERABE TALDEEKIN	Egonkorra	10	1
UDAKO TXANGOIA: BARBAKOA ETA HONDARTZA EGUNA GORLIZEN; IKASGUNE ETA AURRE-NERABE TALDEEKIN	Egonkorra	10	1



## ONDORIO ESANGURATSUENAK

### Arreta jasotzen duten familiei buruz:

- Aurten, 2014. urtearekin konparatuz jeitsi egin da atenditutako familia kopurua. 2013. Urtean 19 familia atenditu ziren, 2014 an 24 familia eta 2015 urtean 18 familiak jaso dute esku-hartzea. Deribazio gutxi egon dira aurten, eta esan beharra dago, kasu gehiago itxi direla zabaldu direnak baino.
- Aurten Irekitako esku-hartze familiarren kopurua txikiagoa izan da aurreko urteekin alderatuz: 2013. Urtean 14, 2014.urtean 13 eta 2015.urtean 7 .
- **2013 . urtean , 13 esku-hartze irekiekin bukatu zen urtea, 2014an 12 esku-hartzerekin eta 2015.urtean 9 esku-hartzerekin itxi dugu urtea.**
- Esku- hartzeen itxieraren arrazoiei dagokionez, aurreko urteetako joera mantentzen da. Itxieren gehiengoak honako arrazoiengatik dira; helburuak bete direlako, kolaborazio ezagatik, edota bestelako baliabide batzuetara deribatuak izan direlako. 2015 .urteari lotuta, itxitako kasuen % 44 a helburuak bete direlako izan dira.
- Eskaeren jatorriari dagokionez, tendentziak berdintsu jarraitzen du. Eskaeren gehiengoa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik dator (12 kasu). Jarraian, familia beraren eskaerek (4 kasu) dute jatorria.
- Lan egin dugun familien egiturari begiratzen badiogu, gehiengoek guraso bakarreko egitura familiarra zein familia berregituratua daukate. Beste familia askotan, gurasoen banaketa gatazkatsuak nabarmentzen dira eta baita, adin txikikoen babes falta egoerak.
- Familien egoera ekonomikoari dagokionez, 2015ean esku hartzean izan ditugun familien ehuneko 55ak, bai Gizarte Zerbitzuetako zein Lanbide zerbitzuko laguntza ekonomikoen jasotzaileak direla esan behar dugu.
- EISE-GHAZ zerbitzua jaso duten familien lan egoerari buruzko datuek adierazten dutena hauxe da: langabezi egoeran dauden persona kopurua nabarmenki jeitsi da. Bestalde, igo egin da lan aldien alternantzia egoeran dauden pertsonen kopurua eta azkenik esan, jeitsi egin dela kontraturik gabe lan egiten zuten pertsona kopurua aurreko urtearekin alderatuta. Ehunekotan begiratzen badugu, lan normalizatuari begiratzuz, %eko 35 etik %eko 50 eko kopurura pasatu gara; langabezi egoera berriz, % eko 41 etik %eko 16 ra jeitsi da ; kontraturik gabeko lanak zituzten pertsonen begiratura, %eko 21 etik %eko 8 ra jeitsi da kopurua, eta azkenik lan aldien alternantzia egoerak % 3tik % eko 25 era igo direla esan beharra dago.
- Lan esparruan ematen den inklusio falta nabarmenena emakumeek pairatzen dute. Kontraturik gabeko lanetan edota lan aldien alternantzia egoeran dauden gehiengoak

emakumeak dira datuen arabera. Lanpostu hauek , “ feminizatuak ” deiturikoak , gehienetan prekarietate egoera eta bazterketa sozialaren egoerak sortarazten dituzte.

- Jatorri geografikoari begiratuta , lan egin dugun familietako pertsonen erdia baino gehiago Mankomunitateak osatutako herrietakoak dira ( 26 pertsonetatik 16 konkretuki). Gainontzeko pertsonak etorkinak dira; jatorri Hego amerikarreko 8 pertsona eta 2 pertsona Portugaldarrak hain zuzen ere.
- Bikotekide bakoitzaren jatorri geografikoari dagokionez, 16 pertsona Bizkaitarrak dira, 8 Hego-amerikarrak eta 2 Portugaldarrak.
- Beste baliabide batzuetan espedientea zabalik duten familiei dagokionea, Konkretuki Bizkaiko Foru Aldundian 2 familietatik 3 ra pasatu da eta Epaitegietan espediente duten familiei dagokionez jeitsi egin dira, 7 tik 6 ra pasatuz.
- Atenditutako 18 familietatik 13 tan, familiako pertsonaren batek gaitz mentala dauka. Datu hau oso esanguratsua da , eta esku-hartzeen konplexutasuna areagotu egiten du .
- Familien Bizi lekuari dagokionez, esanguratsua da Barrikan, Lemoizen eta Urdulizen bizi den familiarik ez dagoela. Bestalde, Plentzian 6 familia, Sopelan 5 familia, 4 Berangon eta 3 Gorlizen daukate beraien bizilekua.

#### **Familia esku-hartzeetan arreta jasotzen duten adingabeei buruz:**

- 32 adin txikiko atenditu dira esku-hartze familiarretan ( aurreko urtean baino 9 gutxiago). Hoietariko 7 mutilak dira. Adin txikikoen adinei dagokionez, orekatuak daude, adin esparruetan oso antzeko kopuruak azalduz..
- Familia hauetako adin txikikoen gehiengoak Plentzian bizi dira (9). Jarraian; Berangon (8), Gorlizen (8), eta Sopelan (7).
- 2014.urtearekin alderatzu, adin txikikoen gurasoen eginbeharren betetzea , kasu gehienetan desegokia dela ikus daiteke. Adin txikikoen babesgabetasun mailari dagokionez, haur edo nerabeen gehiengoak arrisku egoera ertainean aurkitzen dira.

#### **Talde Esku-hartzeetan eta banakako esku-hartzeetan atenditutako adin txikikoei buruz:**

- Aurten 2 adin txikiko atenditu arren banakako esku- hartzeetan 2014 .urtearekin konparatuz, taldekako esku- hartzeetan 21 etik 25 era pasatu gara. Guztira, 31 adin txikikori eman zaie atentzioa ( 6 banakako esku-hartzeetan eta 25 taldekako esku-hartzeetan).
- 2015 .urtean irekitako adin txikikoen esku- hartzeak 16 izan dira. Itxitakoak berriz, 18.
- Itxi diren 18 kasueen arrazoiak honakoak izan dira: 2 kasu helburuak bete direlako, 2 kasu adinez nagusiak direlako, 3 kasu parte hartze ezagatik , 10 kasu programa bukatzeagatik eta kasu bat ordutegien ezintasunagatik.

- Eskaeren jatorriari dagokionez , esku hartze familiarretan bezala, eskaeren gehiengoak Gizarte Zerbitzuetatik datos. Jarraian , ikastetxeak dira deribatzen duten baliabide nagusia.
- Sexuari dagokionez, bai neska zein mutil kopuru ia berdinari ematen zaie atentzioa . Adinari dagokionez, 8-18 urte bitarteko adin txikikoekin egiten da esku-hartzea. EISE-ko Taldekako esku-hartzeetan 8-12 urte bitarteko tarteari lehentasuna ematen zaio era prebentiboan lan eginez. Hala ere, ez dugu ahazten 13-18 urte bitarteko nerabeen atentzioa eta harreta berezia ematen zaie halaber.
- Esku-hartzeetako haur eta nerabeek dituzten egitura familiarrari arreta jartzen badiogu, datuek esaten digutena hurrengoa da: gehientsuenek guraso bakarreko familiak eta eta bi gurasoko familia nuklearrak dituztela.
- Bestalde, adin txikikoen % 61a jatorriz Mankomunitatekoak bertakoak dira. Hala ere, esan beharra dago ezin ditugula ahaztu beste errealitateak ahaztu gabe , hegoamerikarra batipat.
- Babesgabetasun mailari dagokionez, aurreko urteetako portzentaiak mantentzen dira: % 64 ak maila arinaren barne daude, eta % 32 ak aldiz, maila ertainean daude. Maila larrian adin txiko bakar bat topatzen da.
- Beste baliabide edo errekurtsotan espedientea zabalik daukaten kopuruari begira, esan, Bizkaiko Foru Aldundiko adin txiiko zerbitzuan dauden kasuak handitu egin direla ( 4tik 7 ra pasa dira). Epaitegian ere, espedientea zabalik duten adin txikikoen kopurua handitu egin da 2 tik 5 era aurreko urtearekin alderatuz.
- Kontutan izan beharreko aspektu esanguratsu bat, 31 haur edo nerabeetatik, 14 k gaitz psikologikoak azaltzen dituztela da. Adin txikiko hauek bai SEDIM edota Osakidetzako - Osasun Mentaleko Zerbitzuetan jasotzen dute terapia. Zenbaki hau igo egin da 2014 .urtearekin konparatuz (9).
- Haur eta nerabeen bizi lekuari lotutako datuek esaten digutenaren arabera,aurten, Lemoizen izan ezik, beste herri guztietako ume edota nerabeek jaso dute harreta.
- Banakako esku hartzeetan laguntza jaso duten adin txikikoen gehiengoak Sopelan bizi dira(5) eta beste adin txikikoa berriz, Barrikan.
- Taldekako esku-hartzeetan arreta jaso duten ume eta nerabeen bizi lekuari dagokionez, Plentzian daude gehientsuenak (10), jarraian Sopela (6), Gorniz (5) , Urdulizen (2), eta Barrika eta Berangon (1).

**Talde ekintzei buruz:**

- **Esan** beharra dago 3 talde programa mantentzen direla adin txikikoekin ( bat adin esparru bakoitzerako), asteko saioak eginez . Guztira, 20 haur edota neraberi ematen zaie arreta.
- 2015. Urtean, EISE-GHAZ zerbitzuak atenditutako pertsona helduei zuzendutako 2 talde ekintza eraman dira aurrera eta baita,EISE –ko familiei zuzendutako 3 talde ekintza burutu dira. Parte hartzea oso altua izan da.
- Aurten, biztanleria osoarentzako ekintza komunitario bat eraman dugu aurrera. Parte hartzea eta inplikazioa maila handia izan da parte hartzaileen aldetik.
- EISE-GHAZ ak atenditutako haur eta nerabeekin ere, 6 talde ekintza burutu dira urtean zehar . Ekintza hauetan parte hartzaile kopurua 5 eta11 bitartekoa izan da ( media 8 adin txikiko).

## ONDORIO NAGUSIAK HERRIKA

EISE-GHAZ programa Uribe Kostako mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako programa bat da. Mankomunitatea osatzen duten herri guztiei dago zuzenduta: Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz herriei hain zuzen ere. Jarraian, aurretik txostenean emandako datuen laburpen bat aurkezten da herriz herri.

### Barrika

Aurten ez da egon esku-hartze familiarrik Barrikako herrian. Bai ordea, esku hartzea 2 neraberekin, 2015eko Abenduan zabalik jarraitzen dutenak.

Bi nerabe hauetariko bat, urtean bertan irekitako kasu bat da eta taldekako esku-hartzean jaso du arreta. Herrialdeko pertsona bat da eta harrera familia zabalean bizi da.

Bestea aldiz, 2015a baino arinago zabaldu zen eta banakako esku-hartzea jasotzen du. 13-16 urte bitarteko adina dauka, herrikoa bertakoa da eta bi gurasotako egitura familiarra dauka.

### Berango

2015 urtean Berangoko herrian bizi diren 4 familiari eman zaie arreta, zeintzuetan 8 adin txikiko bizi diren guztira. 4 familia hauetatik, Abenduko datarekin batek bakarrik jarraitzen du zabalik. Gainontzeko hirurak itxiak izan dira 2015 urtean zehar. Esku hartze horietatik gain, nerabe batek arreta jaso du EISE-GHAZeko talde programa batean.

Taldekako programan arreta jaso duen adin txikikoak esan, 13-16 urte bitarteko adina duela, familia berregituratu batean bizi dela, Hegoamerikako jatorria duela eta espedientea 2015. urtea baino arinago zabaldua izan dela.

### Gorniz

2015. urtean zehar 3 familiak jaso dute EISE-GHAZaren esku-hartzea. 3 familia hauetatik, Abenduan 2 familiarekin lanean jarraitzen da, eta hirugarrena itxi egin da urtean zehar. Aipatu, 3 familia horietatik bakarra zabaldu dela 2015 urtean bertan.

Gornizen atenditutako familien perfilari buruz, esan, familia berregituratuak eta bi gurasodun familiak direla, Lanbide edo Gizarte zerbitzuetako laguntza ekonomikoan jasotzaile direla, familia 1 herrikoa dela eta beste biak jatorri Hegoamerikarra daukatela. Familia hauetan, 8 adin txikiko bizi dira; 5 mutil eta 3 neskatu.

Adin txikoen esku-hartzeari begiratuz, 2015. urtean 5 kasurekin egin da lan. Hauetariko, 4 urtean zehar irekiak izan dira. Ezaugarri adierazgarrienak honakoak dira: familia berregituratua daukaten egituran bizi dira, 8 eta 16 urte bitarteko adina daukate, eta herrikoak eta Hegoamerikatik heldutako etorkinak dira.

### Lemoiz

Aurten ez da egon esku hartzea izan duen ez familia ez adin txikikorik Lemoizeko herrian.

### Plentzia

2015 urtean, Plentziako 6 familiak jaso dute esku-hartzea . Hauetatik 4 familiak esku-hartzea zabalik daukate urtearen amaieran. 6 familietatik 4, urtean bertan zabalduak izan dira . 2 esku-hartze itxiak izan dira urtean zehar.

Plentzian arreta izan duten familien perfila, honakoa da: guraso bakarreko familiak eta bi gurasodun familiak dira. Lanbide edota Gizarte zerbitzuetako laguntza ekonomikoen jasotzaileak dira, eta gehiengoak jatorriz plentziarrak dira. Familia hauetan, 9 adin txikiko bizi dira . Horietatik 6 mutilak dira eta 3 neskak.

2015. urtean 10 adin txikikok jaso dute EISE-GHAZ zerbitzuaren arreta taldekako programetan. Hauetatik 6k zabalik jarraitzen dute urte bukaeran. Bestalde, 7 esku hartze itxi egon dira urtean zehar. Adin txiki hauen ezaugarri nagusiak honakoak dira:guraso bakarreko familietan zein bi gurasodun familietan bizi dira ( 10 hauetatik 2 harrera familia zabalean bizi dira).

Gehiengoek 8-12 urte bitarte dituzten arren, 13-18 urte bitarteko nerabeak ere badira. Jatorri geografikoari dagokionez, gehiengoak eskualdekoak diren arren, hegoamerikarrak eta afrikarrak diren gazte batzuk ere badaude.

### Sopela

Sopelako herriari begira, 2015 urtean 5 familiak jaso dute EISE-GHAZ zerbitzuaren arreta. Hauetariko 3k urte bukaeran zabalik jarraitzen dute, eta beste 2 esku-hartze familiar 2015 urtea baino arinago hasi ziren. Bestalde, 3 kasu itxiak izan dira urtean zehar.

Sopelako familien perfilari begiratzuz, egitura aldetik denak dira guraso bakarreko familiak (ama edo aita bakarrik). 2 familiak laguntza ekonomikoen jasotzaileak dira , eskualdeko edota herriko jatorri geografikoa daukate, eta 7 adin txiki bizi dira guztira familia hauetan ( 4 mutil eta 3 neska).

Adin txikikoen esku-hartzeari begiratzuz badiogu, 2015 urtean EISE-GHAZ zerbitzuak 11 haur edo neraberi eman dio arreta. 6 taldekako programetan eta 5 banakako esku-hartzean. Esku- hartzeen totaletik, 4 urtean bertan hasiak izan dira.

Adin txikikoen ezaugarri nagusi bezala esan dezakegu, guraso bakarreko familietan ( bai ama edo aita bakarrik) zein bi gurasodun familietan bizi direla, eta adinaren aldetik, gehienak 13 -16 urte bitarteko tartean dauden arren, 8-12 urte bitarteko adinean ere badira. Jatorri geografikoaren aldetik, gehienak eskualdekoak diren arren hegoamerikarrak diren ume edo nerabe batzuk ere badaude.

### Urduliz

2015 urtean ez da Urdulizko familia batekin ere ez esku hartzerik egon EISE-GHAZ zerbitzuan . Bai ordea, 2 taldekako esku-hartze 2 neraberekin, zeintzuek urte bukaeran zabalik jarraitzen zuten.

2 kasu hauek 13 eta 16 urte bitarteko adina daukate, eta bata familia berregituratu batean bizi da eta beste bi gurasodun egiturako familia batean.

2015 urtean zehar EISE-GHAZ zerbitzuaren lana, besteak beste erreflexio sakon batean murgilduta egon da , ekipoaren funtzionamenduaren inguruan bere lana eraginkorragoa izan dadin sortzen diren erronka berriei aurre egiteko asmoz.

Zentzu honetan, ondoren azaltzen ditugun esparru ezberdinetan egin da lan:

- Barne Koordinazioa: Ekipoak esfortzu garrantzitsua bideratu dio bai barne koordinazioari eta baita talde kofesioari. Horretarako, asteroko batzarrak egin dira kasuen egoerari buruz hitz egiteko eta baita, talde programei edota ekintza komunitarioei buruz hitz egiteko. Halaber, ekintza eta baliabide berriak martxan jartzeko bideragarritasuna eta diseinua ebaluatzeko ere denbora eskeini zaio batzarrei.

- Kanpo koordinazioa: Ekipoak hilabeteroko bilerak izan ditu Ortzadarreko EISE-GHAZ zerbitzuen koordinatzailearekin kanpo begirada bat ahalbidetuz eta talde eta hezitzaile bezala, lanaren hausnarketa bat posible eginez.

- Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa: Hilabeteroko batzarrak mantendu dira Gizarte langileen taldearekin. Balorapenari dagokionez, erabilgarriak izan arren, esan beharra dago, guztiz ez dutela balio izan EISE-GHAZ eta Gizarte Langileen arteko komunikazioa bideragarria izateko, ezta EISE-GHAZ zerbitzuaren ekintzen jarraipena egiteko edota egiten den lanari buruzko hausnarketa egiteko ere. Zentzu honetan, eta 2016rako erronka bezala , komunikazio eta koordinazioa hobetzeko helburua dago honako arloetan; kasu berrien jasoera, lan prozeduren berrikustea eta ekintza komunitarioen eta taldekako ekintzen berrikustea.

- Protokolo eta prozesuen sistematizazioa: Aurten aurreratu egin da esku-hartze prozesuen sistematizazio eta prozeduren bateratzean:

- Gizarte Zerbitzuek sortutako deribazio fitxa eta jarraipen fitxa bat jarri dira martxan.

- EISE-GHAZ zerbitzuaren kasuen itxiera prozesua argiago definitu egin da .

- Informatika sarean, karpeta bat sortu egin da zeinen bitartez kasuen informazioa partekatu egiten den gizarte langile eta hezitzaileen artean.

Protokolo zein informe fitxa eta ereduak argitu ondoren, EISE-GHAZ zerbitzuaren aldetik, dinamika hau egunerokotasunean integratzea, epeak betetzea, zein informeen kalitatea hobetzea ( informazio zehatza eman, argitasunez komunikatu) izan dira gure helburuak.

- Beste errekurtsuekin koordinazioa: EISE-GHAZ zerbitzuaren tresna garrantzitsua da lana aurrera eramateko. Denbora esanguratsua eskeintzen da beste entitate eta errekurtsuekin harremana izatera (udalekoak, hezkuntzakoak, publikoak, pribatua, ong...) sinergiak sortuz eta aldi berean, sarean lan eginez EISE-GHAZ zerbitzuaren erabiltzaileengan ondorio baikorrak lortuz. Hala eta guztiz ere, premiazkoa da ildo horretatik lanean jarraitzea sare komunitarioko agente ezberdinekin harremanak sortuz ekintza berriak diseinatu ahal izateko.



- Ekintza komunitarioak: Aurten EISE-GHAZ zerbitzuak familia eta hezkuntzako jardunaldi bat garatu du Haurraren Babesaren Nazioarteko egunaren inguruan. Ekintza hau oso ondo onartua eta baloratua izan da erabiltzaile zein ekipoaren aldetik. EISE-GHAZ zerbitzutik arlo komunitarioan ekintza prebentiboak egiten jarraitzea oso garrantzitsua dela baloratzen da. Zentzu honetan, bazterketa sozialaren egoerak ekiditzeko eta bide batez, bizi kalitatea zein testuinguru soziala, hezkuntzazkoa zein kulturala hobetzeko bideratzea premiazkoa ikusten da.
- Taldekako programak: EISE-GHAZ zerbitzuari nortasuna ematen dion ezaugarrietako bat da. Esku-hartzeen prozesuak neurri handi batean taldekako ekintza edo programetan garatzen dira. Ildo honetan, aurten 3 taldekako programa garatu dira , zeinetan astekako saioak burutu diren , eta 20 bat adin txikiko jaso duten harreta. Gainera, urtean zehar 5 taldekako ekintza berezi eraman dira aurrera ( Sukaldaritza tailerra, Gurasotasuna programa, Gizarte sareak eta euskarri digitalak tailerra, Sukaldaritza familia artean tailerra eta txango familiarra). Pentsatzen dugu, lan ildo hau oso onuragarria dela esku-hartzeen garapenerako eta beraz, taldekako errekurtsio berriak diseinatzea , martxan jartzea eta sendotzea dugu helburu.
- Deribazioak: Urtean zehar ez dira deribazio (kasu berri) asko egon Gizarte Zerbitzuengandik. Konkretuki; 7 familia. Adin txikiko datuei dagokionez, baikorragoak dira , 16 kasu deribatu direla kontutan izanik. Orokorrean, familia esku-hartzeak eta adin txikiko banakako esku-hartzeak jeitsi egin direla ikus dezakegu eta taldekako esku-hartze kasuak aldiz, igo egin direla.

Testuinguru honetan, zailtasun egoeran daude nerabeen kasuak detektatzeko helburuarekin, Nerabeengana Hurbilduz programa diseinatzen ari gara 2016. Urtean martxan jarri ahal izateko.

# 2015eko HELBURU ESTRATEGIKOEN BERRIKUSTEA

## 2015 eko helburu estrategikoen berrikustea eta balorazioa

### 1.- PERTSONA HARTZAILEENGANAKO HELBURUAK

- 1.1.- Erabiltzaileei arreta ematen diegun testuinguruari buruz kontzientziatu. Mankomunitateak helburu honetara egokituta dituen gelak biltegi gisa erabiltzen dira eta ondorioz ez dute Gizarte Lanaren garapenerako giro egoki bat sortzen.

#### HELBURUA BETE DA.

Psikologaren bulegoa hobetu egin da, bere erabilera egokiagoa eginez, bai psikologa beragatik eta baita gainontzeko zerbitzuengatik.

Pentziako lokalean ere hobekuntzak egin ditugu bere erabilera atsegina ere bihurtuz .

Honetaz gain, gizarte zerbitzuetako koordinatzaileak gabezia honen jabetza ere hartu du eta Mankomunitateko , mankomunitateko gainontzeko zerbitzuak batzar batera deituz. Komisioan ere gaia barneratu du bertan lantzeko.

- 1.2.-Familia erabiltzaileak, beraien seme-alabak hezterako orduan dituzten zailtasunetan oinarritutako programa egonkor bat diseinatu eta ikasturtean zehar martxan jarri.

#### HELBURUA BETE DA

“Gurasotasuna” deituriko programa diseinatu egin da. 2015 eko urte bukaeran martxan jarri da.

- 1.3.- Beraien kargura adingabeak dituzten pertsona helduengan antzematen diren beharretara egokitutako talde jarduera egokiak proposatu.

#### HELBURUA BETE DA

Pasa den kurtsoan familia erabiltzaileei zuzendutako talde programa ezberdinak burutu ditugu: familiekin 2 txango, gurasoei zuzendutako sukaldaritza kurtso bat, Euskarri digitalen eta gizarte sareen tailer bat eta sukaldaritza tailer bat familiekin.

### 2.- GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZE PROZESUETAKO HELBURUEN KUDEAKETA

- 2.1.-Arrisku egoeran dauden nerabeen detekzioa nola hobetzeko hausnarketa bat egin Oinarrizko gizarte zerbitzuarekin batera .

#### HELBURUA PARTZIALKI BETE DA

Gizarte laneko ekipoan ideia hau aurkeztua izan da , baina ez da gehiegi hausnartu gai honen inguruan.

- 2.2.- Bigarren hezkuntzako zentroetan zailtasunak dituzten nerabeak antzematen errazteko balio izango duen programa bat diseinatu.

#### HELBURUA PARTZIALKI BETE DA.

Programa bat diseinatu da baina bere koplexutasuna dela eta, ez da bukatu eta horretan jarraitzen dugu lan egiten.

- 2.3.- Gizarte Ongizate Sailarekin behin betiko adostu esku hartzeetan erabiliko diren fitxa eta txosten ereduak.

#### HELBURUA BETE DA

- 2.4.- Haur hezkuntzan eta lehenengo hezkuntzan beraien kargura adingabeak dituzten familientzat zuzendutako elkargune bat sustatu. Elkartze hauen gai nagusia Familia eta Hezkuntza izango da. Egitasmo hau azaroaren 20an egingo litzateke, Haurren Egun Unibertsala dela kontuan izanda.

#### HELBURUA BETE DA

Azaroaren 18 eta 19 an bi elkargune burutu dira Sopolako Kurtzio Kultur Etxean, Haurren Egun Unibertsala hizpide izanik.

### 3.- KANPO KOORDINAZIOAREN HELBURUAK

- 3.1.- Mankomunitateak dituen zerbitzu ezberdinen artean bi hilero egiten diren batzarrak sendotu eta burutu ahal diren baliabide eta ekintzei ahalik eta etekin gehien atera.

#### HELBURUA PARTZIALKI BETE DA

Urtearen lehenengo sei hilekoan batzarrak egonkortu egin ziren. Bigarren sei hilekoari dagokionez ez. Momentu hontan, batzar hauen erabilerari buruzko hausnarketa bat egiten ari gara.

- 3.2.- Gizarte Langileekin batera hilero egiten diren koordinazio bilerei atera ahal zaien probetxua indartu. Gizarte langileek eta GHAZko lan taldekoek dituzten bileretarako eztabaidagaiak gehitzeko helburuarekin postontzietan karpeta bat sortu (banakako eta taldeko deribazioak, programa bereziak...)

#### HELBURUA LORTZE BIDEAN DAGO

Momentuz, GEISE deituriko karpeta elkartu bat sortu da eta edukinez betetzen hasi gara.

#### 4.- TALDE KUDEAKETAKO HELBURUAK

4.1.- Gizarte eta Hezkuntza esku hartze taldean lan egiten duten pertsonen artean astean zehar denbora tarte bat bideratu, hurrengo puntuak lantzearen:

- Informazio gehiago eta hobea partekatu..
- Lan jarduerak berez dituen zailtasunei buruz hausnartu.
- Jarduera eta baliabide berriak diseinatu

##### HELBURUA BETE DA

Batzar hauek finkatu egin dira.

4.2.- Ortzadarreko koordinatzailearekin egiten diren koordinazio bilerak finkatutako meten eta lantaldearen egoeraren inguruan hausnartzeko aprobetxatu

##### HELBURUA BETE DA

Koordinatzaile berria era onuragarri batean bizi da ekipoan , lan giro osasuntsu eta konfidantzazkoa sortuz.

# 2016 rako HELBURU ESTRATEGIKOEN PANELA

## 2016 rako helburu estrategikoen panela

### 1.- PERTSONA HARTZAILEENGANAKO HELBURUAK

1.1. Lan-giroa eta erabiltzaileen harretarako testuinguruak hobetzeko behar izanaz kontzientziatzen jarraitu. Bereziki, bulego eta batzar gelari dagokionean.

- Bulegoan zarata itzela sortzen da eta sarritan ezinezkoa egiten da kontzentratzea . Gainera, ez dira elkarrizketek behar dituzten pribazitate kondizioak ematen. Ez telefono bidez, ezta pertsonalki ere. Bestalde bulegoek, konponbide erreza duten gabezia nabarmenak dituzte beste arlo batzuetan . Adibidez; eskegitoki eza, argitasun gutxi lan leku batzuetan, edota entxufe batzuen egoera kaskarra.
- Batzar gelari dagokionez, neurri handi batean biltegi antzera erabiltzen jarraitzen da eta ondorioz, ez du klima egokia sortzen gizarte esku-hartzea aurrera eramateko.

1.2 Gizarte bazterketa egoerak ekiditzea helburu daukaten esparru komunitarioko ekintza prebentibo irekiak diseinatzea, Mankomunitateko biztanleen bizi kalitatea eta hezkuntza esparrua ,zein esparru sozial eta kulturala hobetzea eta sustatzea .

### 2.- GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZE PROZESUETAKO HELBURUEN KUDEAKETA

2.1.- Haurraren babesaren nazioarteko eguna dela eta burututako Familia eta Hezkuntza Jardunaldiak burutu ondoren, ekintza hau egonkortu eta erreferentziala bihurtzea dugu helburu.

2.2.- EISE-ko taldeko programetara deribatu daitezkeen adin txikiko ezberdinei buruz hausnartu eta horien artean , Mankomunitatean dauden babes etxeetako haurretan jarriaz atentzioa.

2.3.- Nerabeengana Hurbilduz Programaren diseinua amaitu eta martxan jartzea. Programak duen konplexutasuna kontutan izanik, planteamendu eta zailtasun berriei erantzun berriak bilatzen dihardugu.

2.4.- Gure zerbitzua gizarteratu eta ikustaraziko duen dokumentu espezifiko bat diseinatu eta elkarbanatu gure zerbitzua aurkeztea izanik helburua .

### **3.- KANPO KOORDINAZIOAREN HELBURUAK**

- 3.1.-** Gizarte komunitateko agente ezberdinekin komunikazio, kooperazio eta elkartruckerako bideen sorkuntza sustatzea (gizarte baliabideak / hezkuntza arlokoak / kulturalak / osasun arloa / boluntarioak.., urrakortasun egoeran dauden familia eta adin txikikoen behar izanen detekzioa ahalbidetuko dutenak, gerora, gizarte komunitaterako ekimenak martxan jartzeko helburuarekin.
- 3.2.-** Komunikazio eta koordinazio eredu egoki bat lortzea Gizarte langileen taldearekin, zeinen bitartez erantzun egokia ematea lortzea hurrengo gaien inguruan; kasuen jasoera, lan prozeduren rebisioa, arlo komunitarioko eta talde ekintzen rebisioa.
- 3.3.-** Gizarte hezitzaileok gizarte langile bakoitzarekin ditugun kasuen jarraipenaren koordinazio batzarretan, harremana eta komunikazioa sendotu.

### **4.- TALDE KUDEAKETAKO HELBURUAK**

- 4.1.-** Ekipoaren barruan ditugun asteko koordinazio batzarretan , kasuen superbisioari denbora bat eskeini. Konkretuki, hilebetean behin ondo legoke.
- 4.2.-** Ekipoan, Zerbitzua hobetzeko edota talde esku hartze berriak sortzeko moduan hausnartzen jarraitu.
- 4.3.-** Gizarte Hezkuntza Artekaritza zerbitzuak dituen formakuntza behar izanei erantzuna ematea formakuntza jarraiaeren bitartez. Hortarako, kurtso ezberdinen informazioa elkarbanatuko da eta hauetara joateko asistentzia erreztuko da.